

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatu Nagusiaren 108/2018 Foru dekretua, martxoaren 7koa, onartzen dutena Arabako Lurralde Historikoan materia organikoa gaika biltzeko dirulaguntza lerro baterako 2018ko deialdia

Europako zuzentzaruek eta uztailaren 28ko 22/2011 Legeak berak, hondakin eta lurzoru kutsatuenak, ezartzen dutenez, ingurumen arloko agintariak neurriak sustatuko dituzte bio-hondakinak aparte bildu daitezzen bultzatzeko eta konposta egiteko edo digestio anaerobiorako erabiltzeko, eta hondakinak kudeatzeko plan eta programetan sartu ahal izango dituzte.

Europar, hondakinen esparru zuzentzarua aldatzen ari dira eta, horren harira, Europako Parlamentuko ingurumen batzordeak, 2017ko urtarrilaren 24ko bilkuran, helburutzat ezarri zuen hiri hondakinen ehuneko 70 berrerabiltzea eta birziklatzea, eta biohondakinak nahitaez gaika biltzea.

Halaber, otsailaren 19ko 5/2007 Foru Arauaren bidez, Arabako Batzar Nagusiek Arabako Lurralde Historikoko Hiri Hondakinak Kudeatzeko Plana (2006-2016) onartu zuten, eta plan horretan jaso zen Arabako lurralde osoan biohondakinen gaikako bilketa ezarriko zela. Gaur egun, hondakinen plan berria, alegia, "Arabako hiri hondakinen prebentziorako eta kudeaketarako plana (2017-2030)" idazten ari dira, eta biohondakinen multzoari lotutako indar handiko ekintzak planteatzen ari dira bertan.

Ildo horretan, Arabako Foru Aldundiak 2016an bukatu zuen materia organikoaren bilketa ezartzeari buruzko azterlan bat, Arabako kuadrillekin lankidetzan egina, zeinetan bilketa ereduak eta kuadrilla bakoitzaren beharrak ezarri ziren.

Horregatik, Arabako Foru Aldundiak, Arabako udalak eta kuadrillak motibatu eta haiei laguntza eman nahian materia organikoaren gaikako bilketa susta dezaten, era horretako ekimenak abiaraztea finantzatzeko laguntza lerrorako deialdia egiten du.

Horregatik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 19. artikuluan emandako ahalmenez baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea 2018ko dirulaguntza deialdia, Arabako Lurralde Historikoan materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeko dena, 125.000 euroko zenbatekoaz, Arabako Foru Aldundiaren 2018ko aurrekontuko 60207.6500.7629001 "Toki erakundeek hondakin organikoak gaika biltzeko dirulaguntza" partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 60-105-714/000 18.1.18).

Kontuan izanik dirulaguntzaren zati bat kanpoko laguntza teknikoak eta sentsibilizazio kanpainak finantzatzeko erabiliko dela, eskaerak jaso eta jarduketa horiei dagokien zatia zein den jakin ondoren, aurrekontu doikuntzak egingo dira IV. kapituluko 60207.6500.4629001 "Dirulaguntza toki erakundeentzat, materia organikoa. Gastu arruntak" partidari egozteko.

Zenbatekoa handitzeko muga, dirulaguntza honen oinarri arauetako 6.1 idatz zatian ezarritakoarekin bat etorriz, 100.000,00 eurokoa izango da.

Bigarrena. Dirulaguntzen eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira. Horretarako epea hogeita hamabost egunekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita.

Hirugarrena. Dirulaguntza eskaeren ebazpena emateko, hogeita hamar eguneko epea izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Ebazpen hori erakunde interesdunei jakinaraziko zaie.

Laugarrena. Deialdi honetako dirulaguntzak ordaintzeko eskaerak 2018ko azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira.

Erakundeek diruz lagundutako jarduketak egin behar dituzte 2018ko azaroa baino lehen. Deialdi honetan 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako jarduketek jaso dezakete dirulaguntza.

Bosgarrena. Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko eman beharreko xedapenak eman ditzan.

Seigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

ERANSKINA

Arabako Lurralde Historikoan, materia organikoaren gaikako bilketa ezartzeko diru laguntza lerroaren oinarri arauemaileak

1. artikulua. Xedea

Foru Dekretu honen xedea da diru laguntzak norgehiagoka bidez emateko prozedura, eskakizunak eta baldintzak ezartzea, Arabako Lurralde Historikoan, hondakin organikoen bilketa eta kudeaketari dagokienez.

2. artikulua. Erakunde onuradunak

Honako foru dekretu honetan arautzen diren diru laguntzen erakunde onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoko udalak edo kuadrillak, betiere 50.000 lagunetik beherako biztanleria badute, eta beste pertsona juridiko batzuk, horien titulartasuna Arabako Lurralde Historikoko udal batena edo udal batzuen bada eta erakundearen egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago. Aipatutako erakundeok hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko eskumena izan behar dute edo, bestela, haien kudeaketa gomendioa berenganatuta izan behar dute.

Udal, kuadrilla edo pertsona juridiko bakoitzak diru laguntza jasotzeko eskabide bakarra izapidetu ahal izango du eta, bertan, diruz laguntzeko eskatzen diren kontzeptu guztiak jaso behar dira, 3. artikulua xedatutakoari jarraiki.

Diruz lagungarriak izango dira erakunde onuradun bat baino gehiago duten jarduerak, helburu berak dituztelako, betiere erakunde eskatzaileek lehen paragrafoan adierazitako eskakizunak betetzen badituzte eta erabilera partekatuko plana behar bezala justifikatzen bada.

3. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak ondokoak dira:

A. Bitarteko materialak eskuratzea:

a) Konpost ontziak.

b) Birrintzaileak, egituratzailea fabrikatzeko (zenbait udalerriren artean partekatutak barne).

c) Hondakin organikoen gaikako bilketan erabiliko diren ontziak. Aurkeztutako eskaeran aurreikusi diren lekuetan kokatu beharko dira ontziak edo, hasierako aurreikuspena aldatuz gero, egokien irizten eta hala justifikatzen diren lekuetan. Gehienez ere, hartutako ontzi guztien ehuneko 20 gorde ahalko dira beste batzuk ordeztuko.

Ez da diruz lagungarria izango bilketa eta konpostaje instalazioen hobekuntza estetikoa eta paisaia integrazioa helburu duten materialak erostea.

d) Poltsa konpostagarriak, etxeko ontziak herritarrentzat, ontzi handiagoak merkataritza eta ostalaritzako establezimendu eta hiriko hondakinekin pareka daitezkeen hondakin organikoak sortzen dituztenentzat eta irekitzeko giltza edo txartel pertsonalizatuak ontziak erabili ahal izateko.

e) Ontziak erabiltzeko kontrolari (sarraila elektronikoa) lotutako hardware eta software sistemak, herritarrek eta beste hondakin sortzaile batzuek ontzietan sartzen dituzten hondakin organikoek buruzko informazioa bildu eta tratatzeko beharrezkoak direnak.

f) Komunitate konpostajeko instalazioak. Ondokoen finantzaketari ere heldu ahalko zaio:

- Konpostajeko instalazioa lekutu nahi den lursaila egokitzea.
- Gaika bildutako hondakin organikoak konpostajeko instalazioaren obra zibila. Ez dira kontuan hartuko instalazio osagarriak (bulegoak, makinak gordetzeko biltegiak...).
- Konpostajea egiteko behar-beharrezkoak diren makinak.
- Konpost ontziak eta hondakinak instalazioak biltzeko ontziak.

g) Konpostajeari lotutako inausketa eta lorezaintza hondarrak biltzeko eremuak egokitzea.

h) Diru laguntzaren xedeari zuzenean lotutako beste edozein bitarteko material.

B. Hondakin organikoen bilketa ezartzeko eta horren jarraipena egiteko sentiberatze kanpainak. Proiektuan haren berri emateko estrategia diseinatzea eta ezartzea sartu behar da. Bertan zenbait kontu sar daitezke, hala nola: publizitateko materialak diseinatzea eta argitaratzea (liburuxkak, hiruorrikoak, kartelak, pegatinak, prentsa oharrak, webguneetako edukiak eta abar), proiektua hedatzeko bitartekorik egokienak (webgunea, tokiko prentsa edo irratia eta abar), eta proiektuaren ardura daukan toki erakundeko teknikarien eta parte hartzen duten pertsonen arteko komunikaziorako mekanismoak.

C. Erakunde eskatzaileez kanpoko aholkularitza teknikoak hondakin organikoen bilketaren ezarpena eta horren jarraipena egiteko moduari buruzko aholkularitza emateko. Kuadrilletako langile teknikoen kontratazioa ezingo da diruz lagundu.

Testuinguru horretan, honako foru dekretu honetan arautzen diren laguntzen xede izan daitezkeen jarduketek ondoko baldintzak bete behar dituzte:

1. Ontziaren estalkiaren kolorea RAL 8011, RAL 8024, RAL 8025 edo antzekoa izango da eta behar bezala errotulatu da zein hondakin mota (hondakin organikoak) sartu behar den ontzian.

2. Ahal izanez gero, ontziaren estalkiak gainestalki bat izango du, giltza edo identifikazio txartel batez ireki eta ixteko sarrailaz hornitua. Era berean, estalkiak itxitura motelduko sistema baliatu ahal izango du.

3. Autokonpostajearen eta komunitate konpostajearen izan ezik, udalak/kuadrillak edo pertsona juridikoak ezinbestean garraiatu beharko ditu bildutako hondakin organikoak Biocompost de Álava konpostajeko instalaziora edo hondakin organikoen kudeatzaile baimendu baten instalazioetara, haiek tratatzeko, eta operadoreak zehazten dituen ezaugarriak bete beharko dituzte.

4. Eskuratzen diren konpost ontziak muntatzen errazak izan behar dira, eta konposta aise atera behar da haietatik sareak edo antzeko bitartekoak erabiliz, urte batzuk erabiltzen eman ondoren, karraskariak eta funtzionalak ekiditeko. Aurretiaz, konpost ontzien inguruko eskarmenturik izan ezean, gomendagarria da eskarmentua baduten beste toki erakunde edo beste eragile batzuekin harremanetan jartzea.

5. Eskatutako poltsak konpostagarriak izan behar dira.

6. Ingurumen Sailburuordetzaren urriaren 19ko 1/2015 Jarraibideak, EAeko lurraldean komunitate konpostajeko instalazioek bete behar dituzten administrazio prozedurak arautzen dituenak, edo unean-unean indarrean dagoen legeriak ezarritako atalaseak eta baldintzak betetzen dituzten komunitate konpostajeko instalazioak baino ez dira diruz lagungarriak izango.

7. Eskaerek bat etorri behar dute AFAk kuadrillekin elkarlanean egin duen materia organikoa biltzeko ezarpenari buruzko azterketak jasotzen duenarekin. Goian aipatutako azterketak izenburu hau dauka: "Arabako Lurralde Historikoan sortutako hondakin organikoen gaikako bilketa ezartzeko proposamenaren diseinua", 2016ko abendua.

4. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta lekua

Deialdi egokiaren onespenean adieraziko da.

Era berean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezartzen dituen aurkezpen bideak erabili ahalko dira.

5. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskabideak Hirigintza eta Ingurumen Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuan aurkeztu behar dira, eta eskabidearekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Kuadrillako alkatetza edo burutza daukan pertsonak edo dagokion pertsona juridikoak sinatutako eskabidearen inprimakia, I. eranskinean arabera.

b) Gaikako bilketaren ardura kuadrillaren edo beste erakunde baten esku utzita dagoela, kuadrillako udal batek diru laguntzaren eskaera egiten badu, kuadrillako burutzaren edo, hala badagokio, beste erakunde baten ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horretan, eskatutako diru laguntza onartu behar da, kuadrillak berak gauzatzen duen hondakinen politikarekin bat egiten baitu.

c) Gauzatu beharreko jarduerari buruzko proiektua. Proiektu horrek, gutxienez, ondoko agiriak jaso beharko ditu:

- Proiektuaren memoria. Memoriak, gutxienez, II. eranskinean ageri den ereduak dakartzan atalak eta informazioa jaso beharko ditu.

- Proiektuaren aurrekontuaren banakapen zehatza eta horren laburpena, III. eranskinean jasotakoaren arabera.

- Diruz lagungarriak diren erabilerak edo helburuak zenbait erakundek partekatzen dituztenean, dena delako helburu horren erabilera partekatuaren justifikazioa, plangintza teknikoa eta aurrekontukoa.

d) Erakundeko organo eskudunaren erabakia egiaztatzen duen agiria, eskabidea bera eta gastuaren finantzaketa partziala baimenduta.

e) Helburu bera duten ekintzen ziozko laguntza edo diru laguntza publikoak eskatu direlako ala eskatu ez direlako eta, hala badagokio, eskuratu direlako ziurtagiria, erakundea eta zenbatekoa zehaztuta. Dagoeneko jaso bada, diru laguntza eman delako ebazpenaren kopia (IV. eranskina).

f) Lursailak, orubeak edo eraikinak okupatzen edo erabiltzen badira, horien erabilgarritasuna justifikatzeko eta udal plangintzaren araubidearekin bat datorrela egiaztatzeko ziurtagiria, kuadrillako buruak, udaleko alkateak eta/edo toki erakundeko buruak edo, hala badagokio, partzuergoko buruak oniritzia emanda.

2. Aurkeztutako eskabideetan ez badira betetzen baldintza horiek, Ingurumen eta Hirigintza Sailak erakunde interesatuei eskatuko die konpon ditzatela hutsegiteak edo aurkez ditzatela agiri aginduzkoak, ohartaraziz ezen, osterantzean, artxibatu egingo dela eskabidea, adituz atzera egin duela bere eskaeran.

3. Ingurumen eta Hirigintza Sailak egokituz jotzen duen behar beste agiri eskatu ahalko dizkie erakunde eskatzaileei aurkeztutako eskabidea behar bezala ebazteko.

6. artikulua. Diruz lagundu ahal diren gastuak eta diruz lagundu ahal den aurrekontua

1. Deialdi egokiak oinarri hauen bidez deitutako diru laguntzetarako gehieneko zenbateko osoa finkatuko du, baita diru zenbateko horiek egotziko zaizkien aurrekontuko partidak ere, eta ze diru zenbatekotan handitu ahal diren (ahal izanez gero).

2. Diruz lagungarritzat joko dira, BEZ zergaren zenbatekoak barne, indarrean dagoen legerian behar bezala justifikatzen direnez gain, epearen barruan egikaritu direnak, beharrezkoak direnak eta, gainera, proiektuaren edo jardueraren garapenari eta izaerari erantzuten diotenak. Diru laguntzaren zenbatekoa diruz lagundu ahal den aurrekontuaren ehuneko 70 izango da gehienez ere.

3. Kuadrilla bateko eskaera multzorako gehieneko aurrekontu zuzkidura honela aterako da: deialdian onartutako zenbatekoa, 2. artikuluan aipatzen diren erakundeetakoren batengatik eskaera aurkeztu duen kuadrilla kopuruarekin zatituz. Beharrezkoa bada, eskaerak kuadrilla mailan hainbanatuko dira muga horretaraino. Baldintza hori ez da aplikatuko 6.4 idatz zatia aplikatzen denean.

4. Diruz lagundu ahal diren laguntzen zenbateko osoa txikiagoa baldin bada aurrekontuan dagoen diru zenbatekoa baino, gaidikina proportzionalki banatuko da, eskaera egin duen eta diru laguntza jasotzeko eskubidea duen erakunde bakoitzak jasotako puntuazioaren arabera; ezin izango da inola ere gaiditu 6.2 idatz zatian aipatzen den diruz lagundu ahal den gehieneko portzentajea (ehuneko 70).

Hala eta guztiz ere, aurreko paragrafoan deskribatu den gaidikinaren banaketan ezin dira aplikatu 6.3 idatz zatian azaldutako mugak.

5. Foru dekretu honen itzalpean emandako diru laguntzak bateragarriak izango dira erakunde eskatzaileak helburu honetarako eskura dezakeen beste edozein laguntzarekin, 11. artikuluan adierazitako mugak kontuan hartuta.

6. Diru laguntza ematen den uneko baldintzak aldatuz gero edo, jarduera bera gauzatzeko helburuz, gerora beste diru laguntza batzuk eskuratuz gero, emakidari buruzko ebazpena aldatu ahal izango da, hasiera batean emandako zenbatekoari dagokionez.

7. artikulua. Prozeduraren izapidetzea eta balioespen irizpideak

1. Espedientea izapidetzeko eskumena duen organoa Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua da.

2. Eskaera bakoitzari eman ahal zaion gehieneko aurrekontua esleitzeko aintzat hartuko diren balioespen irizpideak beheko tauletan ageri dira.

| IRIZPIDEA | PUNTUAZIOA |
|--|------------|
| Jardueraren zehaztapen teknikoak | 60 |
| Eskatutako jarduketaren egokitasuna, proiektuak lortu nahi dituen helburuen aldean | 20 |
| Proiektuaren koherentzia orokorra | 20 |
| Guztira | 100 |

Eskaera batzuek jarduera batzuk gauzatzeko diru laguntza eska dezakete. "Jardueraren zehaztapen teknikoak" izeneko atalean, gehienez ere 60 puntu lor daitezke, ondoko taulan jasotzen den moduan. 60 puntu horiek honela banakatzen dira, eskatutako jarduketaren arabera:

| AUKERA | LAGUNTZAK ESKATZEN DIRENEKO JARDUERA MOTAK | JARDUKETEN GEHIENOKO PUNTUAZIOA |
|-----------|--|---------------------------------|
| 1. aukera | Baliabide materialak | 25,00 |
| | Sentsibilizazio kanpainak | 25,00 |
| | Kanpoko aholkularitza teknikoa | 10,00 |
| 2. aukera | Baliabide materialak | 30,00 |
| | Sentsibilizazio kanpainak | 30,00 |
| 3. aukera | Baliabide materialak | 42,85 |
| | Kanpoko aholkularitza teknikoa | 17,15 |
| 4. aukera | Sentsibilizazio kanpainak | 42,85 |
| | Kanpoko aholkularitza teknikoa | 17,15 |
| 5. aukera | Baliabide materialak | 60,00 |
| 6. aukera | Sentsibilizazio kanpainak | 60,00 |
| 7. aukera | Kanpoko aholkularitza teknikoa | 60,00 |

Parametroen bana-banako deskribapena:

- Jardueraren zehaztapen teknikoak.

Eskatutako bitarteko, kanpaina edo aholkularitzen ezaugarri teknikoak, II. eranskinean (Memoria) ageri den informazioaren arabera.

- Eskatutako jarduketek egokitasuna, proiektuak lortu nahi dituen helburuen aldean.

Helburuak lortzeko xedez, jarduketek zer-nolako ekarpena egiten duten balioetsiko da, II. eranskinean (Memoria) ageri den informazioaren arabera; 2. atala, "Eskatutako proiektua ezartzearen ondorioz espero diren helburuak" bai eta erakunde eskatzaileak memorian jaso dituen beste helburu batzuk ere.

- Proiektuaren koherentzia orokorra.

Proposamena sendotzen duten ekintzen plangintza egokia balioetsiko da, aurkeztutako justifikazioetan oinarrituta; hala, argi geratu beharko da unean uneko ekintza isolatuak diren edo ekintza koordinatu eta plangintza zehatz batean behar bezala antolatutakoak diren, sortzen diren hondakin organiko guzti-guztiak eraz kudeatzeko.

Era berean, esandakoaren ildotik, balioetsi egingo da erakunde eskatzaileak aintzat hartzea zer-nolako inbertsio material, sentsibilizazio kanpaina eta prestakuntza ekintza beharrezkoak diren zati organikoaren gaikako bilketa eraz ezartzeko, nahiz eta horiek guztiak ez agertu erakundeak egindako eskabidean.

8. artikulua. Ebazpena

1. Berariaz osatutako balioespen batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Ondokoek osatuko dute mahaia: Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria, mahaiburu gisa; Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuko burua, mahaikide gisa; Ingurumen Prebentzioaren Ataleko burua, mahaikide gisa; eta zuzendaritzari atxikitako funtzionario bat, idazkari gisa.

2. Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, egoki irizitako kasuetan, datuak edo argibideak eskatu ahal izango ditu aurkeztu diren agiriei buruz; eta, eskaera horiei ez bazaie erantzunik ematen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, herri administrazioen administrazio prozedura erkidearenak, aurreikusitako epeen barruan, gerta liteke espedientea atzeratzea, eta are artxibatzea ere.

3. Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, Balioespen Mahaia txostena egingo du ebaluazioaren emaitza zehaztuta.

4. Eskaerak ebazteko gehieneko epea 30 egunekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita; aipatutako epemuga baino lehen, berriazko ebazpenik jaso ezean, eskaera gaitzetsizat jo beharko da, Administrazioak horiek guztiak berriaz ebazteko beharrari kalterik egin gabe.

5. Diru laguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da diru laguntza zer erakunde eskatzaileari eman zaien, eta berriaz adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

6. Ebazpenean, positiboa izanez gero, diru laguntzaren zenbatekoa adieraziko da, bai eta ordaintzeko modua, ukitutako programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta laguntza emateko baldintzak ere.

7. Diru laguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakunde eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. eta 43. artikuluetan xedatzen dituen moduetan.

8. Hasieran kontsignatutako funtsak ezin badira aplikatu, adibidez hasieran emandako diru laguntzei uko egin zaielako, Arabako Foru Aldundiak kontsignazioa areagotu ahalko du, harik eta aurrekontuko zuzkidura agortu arte, aurkeztutako eta onartutako eskaeren balorazioko lehentasun ordenaren arabera.

9. artikulua. Emandako diru laguntzen ordainketa eta zuriketa

Diru laguntzen zenbatekoa ordainduko da diru laguntzaren xede izan den jarduera gauzatu egin dela zuri ondoren, ordainketa bakarrean, diru laguntzaren helburua bete eta justifikatutakoan, edo zatikako ordainketa batzuetan, erakundeak diru laguntzaren xede izan den jarduera amaitu duela justifikatu ahalean.

Ordaintzeko eskaerak aurkezteko eta justifikatzeko epeak deialdi bakoitzean azaldutakoak izango dira.

Ordainketa egiteko eskabideak beheko zerrendan ageri diren datu guztiak jaso behar ditu. Halaber, eskabidearekin batera aurkeztu behar diren egiaztagiriak ere agertzen dira:

1. Idazkariak edo fede emaileak emandako ziurtagiria, azaltzen duena diru laguntzaren helburua den gastua egin dela.

2. Instalazio eta ekipamenduei dagokienez, idazkariak edo fede emaileak egindako ziurtagiria, diruz lagundutako xedeari gutxienez hiru urteko epean eutsiko zaiola adierazten duena.

3. Idazkariak edo fede emaileak egindako ziurtagiria, gastua gauzatzeko egin diren kontratazioak herri administrazioen kontratuen legeak ezarritakoa betez egin direla adierazten duena.

4. Egindako jarduera azaltzen duen memoria, eskabidean aurkeztu den memoriaren aurkibidea eredutzat hartuta (ikus II. eranskina).

5. Komunitate konpostajeko instalazioei dagokienez, Ingurumen Sailburuordetzaren urriaren 19ko 1/2015 Jarraibideak, EAeko lurraldean komunitate konpostajeko instalazioek bete behar dituzten administrazio prozedurak arautzen dituenak, edo unean-unean indarrean dagoen legeak ezarritako atalaseak eta baldintzak betetzen dituztela adierazten duen ziurtagiria.

6. Hala badagokio, obren enpresa adjudikaziodunak bidalitako obraren behin betiko ziurtagiria.

7. Eragindako gastuen zerrenda banakatua, erakunde hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa, jaulkipen data eta ordainketa data adierazita. Diru laguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera eman bada, egondako desbideratzeak adierazi beharko dira. Memoria ekonomikoan, gastuen zerrenda banakatua eta gastuen zerrenda jasoko da, V. eranskinean ageri den taularen arabera.

8. Merkataritzako trafiko juridikoaren froga balio baliokidea duten fakturak edo agiriak, jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak eta ordainketak egin direlako egiaztagiriak.

9. Salbuespenez, eskuratutako diru laguntzak zurrizteko gastuen ordainketa egiaztatu ezean, ordainketa justifikatu beharreko aurrerakin gisa egingo da, eta diru laguntza justifikatzen duten gastuak ordaindu direlako frogagiriak hilabeteko epean aurkeztu beharko dira, diru laguntzaren zenbatekoa jasotzen den egunetik zenbatzen hasita.

10. Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren beste sarrera edo diru laguntza batzuk, zenbatekoa, jatorria, eta eskatutako jardueraren zein kontzeptu osatzen edo gainezartzen duen adierazita. Erakundearen ziurtagiria, aipatutako diru laguntzak eskuratu direla eta ebatzi direla adierazten duena.

Emandako diru laguntzei dagozkien gastu guztiak justifikatu ezean, zenbatekoa gutxitu egingo da, justifikatu gabeko gastuaren heinean.

10. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak

1. Diruz lagundutako jardueren kontratazioa. Diruz lagundutako jarduketak deialdi bakoitzean ezarritako data baino lehen egin beharko dituzte erakundeek.

2. Diruz lagundu ahalko dira deialdian aipatutako dataren ostean hasitako jarduketak.

3. Diruz lagundutako jardueren publizitatea. Diru laguntzaren onuraduna den erakundeak berariaz aipatu beharko du Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak emandako diru laguntza dela.

Hala, jarduera kontratatzeke prestatzen diren baldintza agirietan, Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako jarduera dela jaso beharko da.

Erosten den materialean (edukiontzia eta antzekoak, kuboak, kanpainak eta abar) adieraziko da Arabako Foru Aldundiak diruz lagundutako jarduketa dela.

4. Diruz lagundutako jardueren kontratazioa. Jarduera kanpoko kontratazio baten bitartez gauzaten denetan, diru laguntzaren onuradun den erakunde onuradunak diru laguntzaren xede den jardueraren kontratazioa izapidetuko du, aldi guztietan, eta dena delako jarduera eraz eta osorik gauzatzeko beharrezkoak diren izapide eta baimen guztiak bideratuko ditu; horiek guztiak izapidetuko ditu lanak hasten diren unetik jarduerak behin betiko hartzen dituen arte. Era berean, era eksklusiboan, lizitazioari atxikitako betebeharren gaineko erantzukizuna hartuko du jardueraren adjudikaziodunen aurrean.

5. Gastua egingo da sektore publikoarekin kontratatzeke araudian ezarritakoari jarraiki.

6. Diru laguntzaren xedea instalazioak edo ekipoak badira, erakunde onuradunak horiei eutsi beharko die, gutxienez, hiru urteko epean.

11. artikulua. Diru laguntzen bateraezintasuna

Deialdi honen bitartez emandako diru laguntzak bateraezinak izango dira Arabako Foru Aldundiaren beste sail batzuetatik edo horiei atxikitako erakundeetatik jasotako beste edozein diru laguntzarekin, salbu eta bi alderdiek batera esanbidezko baimena eman badute.

Deialdi honetan onar daiteke beste administrazio nahiz erakunde publiko edo pribatu batzuek (estatukoak nahiz nazioartekoak direla) emandako beste diru laguntza batzuk edo beste diru sarrera batzuk jasotzea, betiere haien kopurua ez bada, bakarka nahiz beste diru laguntza batzuekin batera, diruz laguntzen den inbertsioaren kostua baino handiagoa.

12. artikulua. Ez-betetzeak eta gehiegizko finantzaketa

1. Erakunde onuradunek betebeharrak ez-betetzea.

Aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen ez badira, emandako diru laguntza ezeztatu egingo da, ez-betetzearen zioz, eta hala badagokio, itzuli egin beharko da.

2. Gehiegizko finantzaketa, eta beste diru laguntza eta beste diru sarrera batzuk egotea.

Beste laguntza batzuekiko konkurrentzia dela eta, jardueraren kostuaren gehiegizko finantzaketa gertatuko balitz, onuradunak gehiegizko zati itzuli beharko du, bai eta berandutza interesak ordaindu ere.

13. artikulua. Egiatzatzea

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak egoki irizitako ebazpenak emango ditu deialdi hau garatzeko, diru laguntza izapidetzen duen unitate organikoaren ekimenez, eta behar direnak egiteko ahalmena izango du onuradunek aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela eskatzeko eta egiaztatzeko. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute gauzatzen dituzten jarduerekin zerikusia duten datuak eta agiriak emateko, Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskatzen badizkie. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo eskumena duten beste erakundeek eskatzen dieten informazio guztia ere eman beharko dute.

14. artikulua. Erantzukizunak

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute programa edota jarduera egitearen erantzukizuna, bai eta hura garatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatzea ere.

15. artikulua. Interpretazioa

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak ebaziko ditu.

16. artikulua. Aplikatu beharreko araudia

Honako dekretu honetan arautzen dien diru laguntzak dekretuan bertan eta eskaeren ebaizpenetan ezarritakoari men egin beharko diote.

Oinarri hauetan xedatuta ez dagoen guztian, xedapen hauei jarraituko zaie: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko diru laguntzena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, diru laguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak jasotako diru laguntzen arautegia onartzen duena; abenduaren 18ko 53/1992 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko ekonomia eta aurrekontu araubidearena; aurrekontu antolamenduari buruzko indarreko foru araua; urriaren 1eko 39/2015 Legea, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

17. artikulua. Indarrean jartzea

Oinarri hauek, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

ANEXO I / I. ERANSKINA

Línea de subvención para la financiación de la implantación de la recogida selectiva de materia orgánica en el Territorio Histórico de Álava. Impreso de solicitud.

Arabako Lurralde Historikoan, materia organikoaren gaikako bilketa ezartzea finantzatzeko diru laguntza lerroa.
Eskaera orria..

Eskatzailea ■ Solicitante

| | | |
|---|----------------------|---|
| Entitate onuraduna ■ Entidad beneficiaria | | IKZ ■ NIF |
| <input type="text"/> | | <input type="text"/> |
| Posta helbidea ■ Dirección postal | | |
| <input type="text"/> | | |
| Telefonoa ■ Teléfono | Mugikorra ■ Móvil | Posta elektronikoa ■ Correo electrónico |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |

Entitatearen ordezkari legala (Alkate edo presidentea) Representante legal de la entidad (Alcalde/sa o Presidente/a)

| | | |
|----------------------|---------------------------------|-------------------------------------|
| Izena ■ Nombre | Lehen abizena ■ Primer apellido | Bigarren abizena ■ Segundo apellido |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |

Egitasmoaren arduraduna kontakturako (Egitasmoaren edukien argibideetarako harremana) Persona de contacto encargada del proyecto (Contacto para aclaración de contenidos del proyecto)

| | | |
|---|---------------------------------|-------------------------------------|
| Izena ■ Nombre | Lehen abizena ■ Primer apellido | Bigarren abizena ■ Segundo apellido |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |
| Posta elektronikoa ■ Correo electrónico | Telefonoa ■ Teléfono | Mugikorra ■ Móvil |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> | <input type="text"/> |

Eskaera Solicitud

| | |
|--|--|
| Proiektuaren izenburua ■ Título de la actuación | |
| <input type="text"/> | |
| Laburpena. Ezaugarri eta magnitude nagusiak ■ Resumen. Características principales | |
| <input type="text"/> | |
| Aurrekontua (BEZ barne) Presupuesto (IVA incluido) | Eskatutako dirulaguntza Subvención solicitada |
| <input type="text"/> | <input type="text"/> € |
| Oharrak ■ Observaciones | |
| <input type="text"/> | |



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Documentación preceptiva (marcar lo que se adjunta)

Documentación preceptiva (marcar lo que se adjunta)

| | |
|--------------------------|--|
| <input type="checkbox"/> | Certificado emitido por la Presidencia de la Cuadrilla, o en su caso de la entidad, en la que se dé la aprobación a la subvención solicitada por entenderse que es coherente con la política de residuos llevada a cabo por la misma (en caso de que la solicitud proceda de un ayuntamiento) |
| | Kuadrillako –edo erakundeko– presidentek emandako ziurtagiria, eskatutako diru laguntza onartzen duena, berak daukan hondakin politikarekin koherentea dela ulertzen delako (baldin eta eskaera udal batek egin badu) |
| <input type="checkbox"/> | Memoria del proyecto solicitada (según modelo Anexo II) |
| | Eskatutako proiektuaren memoria (II. eranskineko ereduaren arabera) |
| <input type="checkbox"/> | Desglose de presupuesto del proyecto solicitado (según Anexo III) |
| | Eskatutako proiektuaren aurrekontuaren banakapena (III. eranskinaren arabera) |
| <input type="checkbox"/> | En el caso de usos o fines compartidos por varias entidades objeto de subvención, justificación y planificación técnica y presupuestaria del uso compartido dicho fin. |
| | Diruz lagungarriak diren erabilerak edo helburuak zenbait erakundek partekatzen dituztenean, dena delako helburu horren erabilera partekatuaren justifikazioa, plangintza teknikoa eta aurrekontukoa.. |
| <input type="checkbox"/> | Documento que certifique el acuerdo del órgano competente de la entidad, autorizando la solicitud y financiación parcial del gasto. |
| | Erakundeko organo eskudunaren erabakia egiaztatzen duen agiria, eskabidea bera eta gastuaren finantzaketa partziala baimenduta. |
| <input type="checkbox"/> | Certificado de si se ha solicitado o no, y en su caso, obtenido ayudas o subvenciones públicas para la misma finalidad (según anexo IV). Si ya se dispone, aportar copia de la resolución de concesión de la misma. |
| | Helburu bera duten laguntza edo diru laguntza publikoak eskatu direlako ala eskatu ez direlako eta, hala badagokio, eskuratu direlako ziurtagiria (IV. eranskinaren arabera). Dagoeneko jaso bada, diru laguntza eman delako ebazpenaren kopia. |
| <input type="checkbox"/> | En el caso de ocupación o utilización de terrenos, solares o edificios, justificación de su disponibilidad y del correcto encaje en la normativa de planeamiento municipal, mediante un certificado de la entidad con el visto bueno de la presidencia de la cuadrilla, la alcaldesa o el alcalde del ayuntamiento y/o quien presida la entidad local o en su caso, el consorcio. |
| | Lursailak, orubeak edo eraikinak okupatzen edo erabiltzen badira, horien erabilgarritasuna justifikatzeko eta udal plangintzaren araubidearekin bat datorrela egiaztatzeko ziurtagiria, kuadrillako buruak, udaleko alkateak eta/edo toki erakundeko buruak edo, hala badagokio, partzuergoko buruak oniritzia emanda. |

Data ■ Fecha

Ordezkarri legalaren sinadura eta erakundearen zigilua ■ Firma de la persona representante legal y sello de la entidad

II. eranskina: Memoria

• Proiektuaren deskribapena

.1. Proiektuaren ezarpen egoera gaur egun (bilketa ezarrita egotekotan: gaur egun biltzen diren tonak, arreta jasotzen duen biztanle kopurua, bilketa zein auzo edo zonatan egiten den, etxebizitza kopurua eta hirigintzako tipologia eta abar).

.2. Diruz lagunduko den proiektuaren deskribapen laburra.

• Eskatutako proiektua gauzatuz lortu nahi diren helburuak

.1. Helburu kualitatiboak. Hona hemen batzuk, adibide gisa:

– Herritarrak asebetetzea.

– Emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzea.

– Erakunde eskatzailearen irudia hobetzea.

– Zerbitzua emateari lotutako helburu sozialak (enplegu soziala sortzea, ...).

– Ingurumen alorreko hobekuntzak.

– Hirigintzako tipologia.

.2. Helburu kuantitatiboak. Gutxienez, honako hauek:

– Bildu beharreko hondakin organikoen tona kopurua, sortzen diren hondakin guztien aldean.

– Zerbitzua eman behar zaion biztanle kopurua.

– Zerbitzua eman behar zaion etxebizitza kopurua.

– Arreta ematen zaion biztanleriaren eta proposatutako inbertsioaren ratioa.

• Eskatutako jarduketaren deskribapena

.1. Baliabide materialak:

.1.1. Konpost ontziak¹.

– Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.

– Kopurua.

– Tipologia.

– Sareak edo antzekoak, karraskariak sartzea galarazteko.

.1.2. Birrintzaileak, egituratzailea fabrikatzeko².

– Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.

– Kopurua.

– Tipologia.

.1.3. Edukiontzia jartzea³.

– Ezaugarri teknikoen deskribapena eta egokitasunaren justifikazioa.

– Udalerrian edo kuadrillan hondakin organikoak biltzeko dagoen edukiontzi kopurua (dau-denak eta eskatu direnak batuta).

– Udalerrian edo kuadrillan gainerako hondakinen zatia biltzeko dagoen edukiontzi kopurua.

1 Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

2 Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

3 Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

– Hondakin organikoen zatia biltzeko edukiontziak (daudenak gehi eskatutakoak) / gainerako hondakinen zatia ratioa.

– Udalerrian zati organikoko edukiontzietan eskuragarri dagoen bolumen osoa (daudenak gehi eskatutakoak) / gainerako zatiko edukiontziak ratioa.

– Edukiontzien edo bilketa puntuen kokapena mapan (eskatutakoak edota daudenak), eta mapa hori gainerako zatiko edukiontzien maparekin gainjartzea.

.1.4. Poltsa konpostagarriak, etxeko ontziak herritarrentzat, ontzi handiagoak merkataritza eta ostalaritzako establezimendu eta hiriko hondakinekin pareka daitezkeen hondakin organikoak sortzen dituztenentzat eta irekitzeko giltza edo txartel pertsonalizatuak ontziak erabili ahal izateko⁴. Laguntzak eskatzen diren itemetako bakoitzeko (poltsak, kuboak, giltzak, irekitze-txartelak eta abar) unitate kopurua adieraztea, baita ezaugarri teknikoaren deskribapena eta beraien egokitasunaren justifikazioa ere.

.1.5. Ontziak erabiltzeko kontrolari (sarraila elektronikoa) lotutako hardware eta software sistemak, herritarrek eta beste hondakin sortzaile batzuek ontzietan sartzen dituzten hondakin organikoek buruzko informazioa bildu eta tratatzeko beharrezkoak direnak⁵. Adierazi ezaugarri teknikoaren deskribapena eta haren egokitasunaren justifikazioa.

.1.6. Komunitate konpostajeko instalazioak⁶:

– Konpostajeko instalazioa lekutu nahi den lursaila egokitzeko lanen deskribapena.

– Gaika bildutako hondakin organikoak konpostajeko instalazioaren obra zibilaren deskribapena.

– Konpostajea egiteko behar-beharrezkoak diren makinaren zerrenda eta deskribapena.

– Konpost ontziak eta hondakinak instalazioak biltzeko ontzien zerrenda eta deskribapena.

.1.7. Konpostajeari lotutako inausketa eta lorezaintza hondarrak biltzeko eremuak egokitzea⁷.

– Biltegirako zona jarri nahi den lursaila egokitzeko lanen deskribapena.

– Zona horretan egin nahi den obra zibilaren deskribapena.

.1.8. Diru laguntzaren xedeari lotutako beste edozein bitarteko material eta deskribapena.

.2. Sentsibilizazio kanpainak⁸.

– Egin beharreko jarduketaren deskribapena, abian jarri beharreko ekintzetako bakoitzaren tipologia eta bitartekoak bereiziz. Zehazki, hauei dagozkienak: Publizitate materialen diseinua eta argitalpena, proiektuaren berri emateko bitartekoak, eta proiektuaren arduraduna den toki erakundeko teknikariak eta parte hartzen duten pertsonak elkarrekin komunikatzeko mekanismoak, hizkuntza modu ez sexistan erabiliz, irudi sexistak sartu gabe eta genero estereotipoak erreproduzitu gabe.

4 Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

5 Enpresa hornitzailearen informazio teknikoa edukiz gero, eranskinean gehitu

6 Enpresa hornitzaileek egin behar dituzten lanen informazio teknikoa edota deskribapen memoria edukiz gero, eranskin batean eman

7 Enpresa hornitzaileek egin behar dituzten lanen informazio teknikoa edota deskribapen memoria edukiz gero, eranskin batean eman

8 Zerbitzua emateko eskaintza izanez gero, eranskinean sartu

.3. Kanpoko laguntza teknikoa⁹.

– Azpikontratatu beharreko enpresak egingo dituen aholkularitza lanak deskribatuko dira, argi eta garbi adieraziz kontratazio horren helburua eta espero diren emaitzak.

• **Proiektuaren garapenean zerikusia duten eragileak**

.1. Kuadrillen kasuan, zehaztu zerikusia duten udalerrriak.

.2. Azpikontratatu behar diren kanpoko erakunde hornitzaileen deskribapena, haietako bakoitzak egin behar duen papera zehaztuz.

• **Ezartzeko kronograma**

.1. Jarduera bakoitza hasteko eta bukatzeko data emango da, baita hura gauzatzean parte hartuko duten eragileak ere (bai barrukoak bai kanpoko erakunde hornitzaileak), ezarri beharreko ekintza guztiak zehaztuz.

9 Zerbitzua emateko eskaintza izanez gero, eranskinean sartu

III. eranskina: Aurrekontuaren banakapena (eurotan)

| DIRU LAGUNTZAREN KONZEPtua | | ZENBATETSITAKO UNITATEKO PREZIOA ¹⁰ | ESKATUTAKO UNITATEAK | ZENBATEKO OSOA, BEZA KANPO | ZENBATEKO OSOA, BEZA BARNE |
|---------------------------------|--|--|----------------------|----------------------------|----------------------------|
| Baliabide materialak | Konpost ontziak | | | | |
| | Birrintzaileak, egituratzailea fabrikatzeko ¹¹ | | | | |
| | Edukiontzia | | | | |
| | Poltsa konpostagarriak | | | | |
| | Etxeko ontziak | | | | |
| | Kubo handi sortzaileak | | | | |
| | Giltza edo txartel pertsonalizatuak | | | | |
| | Edukiontziei lotutako hardware sistemak | | | | |
| | Edukiontziei lotutako software sistemak | | | | |
| | Komunitate konpostajeko instalazioak | | | | |
| | Konpostajeari lotutako inausketa eta lorezaintza hondarrak biltzeko eremuak egokitzea | | | | |
| | Diru laguntzaren xedeari zuzenean lotutako beste edozein bitarteko material | | | | |
| Sentsibilizazio kanpainak | Publizitateko materialak diseinatzea eta argitaratzea | | | | |
| | Proiektuaren berri emateko bitartekoak | | | | |
| | Proiektuaren arduraduna den toki erakundeko teknikarien eta parte hartzen duten pertsonen artean komunikatzeko mekanismoak | | | | |
| | Diru laguntzaren xedeari lotutako beste edozein bitarteko material | | | | |
| Kanpoko aholkularitza teknikoak | Kanpoko aholkularitza teknikoak bilketaren ezarpena eta horren jarraipena egiteko moduari buruzko aholkularitza emateko. | | | | |
| Guztira | | | | | |

10 BEZa kanpo

11 Birrintzaile konpartitua bada, eskaera egiten duen erakundearen izenean fakturen bidez justifikatu ahal den zatia partida honetan sartu beharko da. Birrintzaile konpartituaren gastu osoa beste eskaera egile bati badagokio, lauki hau zuri utzi behar da



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

IV. ERANSKINA / ANEXO IV

BESTE LAGUNTZA EDO DIRU-LAGUNTZA PUBLIKOEI BURUZKO ADIERAZPENEA DECLARACION DE OTRAS AYUDAS O SUBVENCIONES PÚBLICAS

| | |
|---|--|
| <p>Agiri honen bidez, nik,)k, behean sinatzen dudana honek (NAN zk.:) honako hau adierazten duterakund e eskatzaileari dagokionez:</p> | <p>Mediante este documento la persona abajo firmante..... con DNI..... declara que el/la entidad solicitante.....</p> |
| <p>Agiri honen bidez, nik,)k, behean sinatzen dudana honek (NAN zk.:) honako hau adierazten dutera-kunde eskatzaileari dagokionez:</p> | <p>Mediante este documento la persona abajo firmante..... con DNI..... declara que el/la entidad solicitante.....</p> |
| <p><input type="checkbox"/> Proiektu honetarako diru-laguntza eskatu duela foru dekretu honen babesean, baina ez duela proiektu bererako beste diru-laguntzarik edo laguntza ekonomikorik eskatu.</p> | <p><input type="checkbox"/> No ha solicitado subvención o ayuda económica para el proyecto que es el objeto de su solicitud al amparo del presente Decreto Foral.</p> |
| <p><input type="checkbox"/> Diru-laguntza edo laguntza ekonomikoa eskatu duela proiektu orretarako edo aurreko proiektu hori hartzen duen beste proiektu abalago baterako. Diru-laguntzarako eskariaren hartzailea:</p> <p><input type="checkbox"/> Eusko Jaurlaritzak. Adierazi zeintzuk diren diru-laguntzari buruzko araudia, aldikari ofizialeko argitalpen data eta, kasua bada, diru-laguntza ematen duen ebazpena.</p> <p><input type="checkbox"/> Beste batzuk. Adierazi diru-laguntza hori zein araudik arautzen duen eta araudi hori zein egunetan argitaratu zen aldikari ofizialean</p> <p>.....</p> <p>Eskatu den diru-laguntza honako egoera honetan dago:</p> <p><input type="checkbox"/> Izapidetzen.</p> <p><input type="checkbox"/> Emanada. Adierazi zein zenbateko eman den:</p> <p><input type="checkbox"/> Ordainduta. Adierazi zenbat ordaindu den :</p> | <p><input type="checkbox"/> Sí ha solicitado subvención o ayuda económica para dicho proyecto, u otro proyecto más amplio que engloba el anterior. La solicitud de subvención ha sido dirigida a:</p> <p><input type="checkbox"/> Gobierno Vasco. . Indicar normativa reguladora de la subvención, fecha de la publicación en el Boletín Oficial que corresponda y, en su caso, resolución por la que se otorga la subvención</p> <p><input type="checkbox"/> Otros. Indicar la normativa reguladora de dicha subvención y fecha de publicación en el Boletín Oficial</p> <p>.....</p> <p>La subvención solicitada se encuentra en la siguiente situación:</p> <p><input type="checkbox"/> En trámite.</p> <p><input type="checkbox"/> Concedida. Indicar el importe concedido</p> <p><input type="checkbox"/> Abonada. Indicar el importe abonado</p> |
| <p>Oharrak:.....</p> | <p>Observaciones:.....</p> |

Alkate udalburuaren sinadura / zigilua /Firma / sello de la alcaldía/presidencia

